


N u !



Joxe Mari Makazaga,
Boliviako usurbildarra



Erle Santua
hildakoentzat argizaria,
bizi direnentzat ezta

Urbil

ZENTRO KOMERTZIALA
CENTRO COMERCIAL



Zuregandik hurbilago

ALKARTASUNA KOOPERATIBA

baserritar nahiz kaletarrentzat

Garaian garaiko egokia:

*piperrantzako ospina eta
paxaranerako anisa*

Baserriko kalitatezko
produktuak:

*gazta, iogurta, txakolina,
zainzuriak, piperrak...*



*Betikoak: ongarririk, lanabesak, haziak,
elikagaiak,...*

*Bereziak: oinetakoak, hurdindegia,
txakur, katu eta txori-janak,...*

*Ordutegia: goizez 9-13, arratsaldez 16-19,
larunbatetan soilik goiz partean*

Ugarte industrialdea, 12 - Telf: 943 36 11 14
E-mail: alkartasuna@fcae.org

Betiko xaporea



Txirrikitutik

Une honetan udal fototekan dauden argazki gehienak udalarenak dira eta horien artean Paisajes Españoles-ek hegazkinetik ateratako herriko argazki dotoreak daude. Urte batzuetan atzera egiten badugu, Paisajes Españoles 1955. urtean sortu zela jakingo dugu. Baina zer helbururekin sortu zen? Batez ere ordu-rarte bilakaera turistikoa, industrial eta infrastrukturen testigantza inongo dokumenturik ez zegoelako. Honako argazki hau horren adibide duzue.

Santuenea auzoa agertzen den argazki hau 1959. urtean atera zuten. Auzoa bere osotasunean ikusi dezakegu, batez ere etxe berrien eraketaren prozesu garbian. Hala ere nahiz eta etxe gehiago egin, bertan zeuden baserriak zein etxeak bere horretan mantendu ziren eta gaur egun oraindik ere hortxe darraite. Memori pixkat egiten baduzue gogoratuko al zarete bertan agertzen diren baserrien izenak? Zorrotzako zubitik begirata, ezkerrean Ermotegi haundi, Ermotegi txiki, Atxeganea, Aialde zahar eta Aialde berri baserriak ageri dira eta eskuinaldean berriz, Santuenea baserria eta ikuilua eta Maizenea etxea.

Gaur egun udalak Paisajes Españoles-ek eskeintzen duen zerbi-



Egilea Paisajes Españoles, 1959. urtea, Santuenea Udal fototeka tzua erabiltzen jarraitzen du. Duela 45 urte atera zen argazki hau guretzat dokumentu garrantzitsua bada, zer izango da gure ondorengoentzat gaur egun ateratzen diren argazkiak?

Zalao Arnaiz Ibareguren.



OHARRA: Udal fototeka herritarren zerbitzura dago eta horretarako atek zabalik ditugu bertako funtzionamendua ezagutzeko, argazkiren bat ikusi edo eta eskatzeko, herriko argazki zaharren bat udal fototekara digitalizatzea ekartzeko... Jar zaitez udal fototekarekin harremanetan, udal txeko 2. solairuan gaude (9'00etatik 14'00etara). Telefonoa 943 371951 eta e-posta: fototeka.usurbil@udal.gipuzkoa.net
Garai bateko argazkien bidez gure herria ezagutzeko aukera izango duzu. Anima zaitez!

N u !

Argitaratzailea : Noaua! Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

Tlf.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02

E-mail: noaua.k.e@euskalnet.net

Web orria: www.noaua.com

Kazetarien koordinatzailea: Imanol Ubeda

Publizitatea: Jon Rueda

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe eta Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkideztza: Aitziber Aranberri

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Jon Rueda, Zalao Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan

AZALA

Esatera zahar bat hartu dugu titular nagusirako.

Aurkibidea

ZUTABEAN, AITZIBER MATXAIN _____ 4. ORR.

BERRIEMAILEAK KALEJIRAN _____ 6. ORR.

KONTZEJU TXIKIA _____ 10. ORR.

Euskararen normalizaziorako Plan Estrategikoa

JOSE MARI MAKAZAGAREKIN SOLASEAN _____ 12. ORR.

Boliviara joan zen gaztetan eta bere ibilbidea jaso dugu zenbaki honetako erreportajearen.



KZGUNEAREN IKASTARO BERRIAK _____ 15. ORR.

ANGULA BILTZEAREN DEBEKUA HIZPIDE _____ 16. ORR.

REALEKO USURBILDARRAK _____ 17. ORR.

EKITALDI AIPAGARRIENAK AGENDAN _____ 22. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !



AITZIBER MATXAIN

Santu Guztien eguna

A tzer a begiratu eta gorputzean nekea sentitzearekin batera, puf! Aurtengoa ere pasa da-ta... Izan ere, pasa berri diren Santu Guztien aurreko egunak, lore saltzaileontzako lan askokoak izaten dira.

Gaur, lore salmenta egun jakin batzuetan nabarmen pilatzen da, besteak beste; San Valentin, Amaren eguna eta Santu guztien egunean. Hala ere, oraindik, hildakoak dira lore gehien jasotzen dituztenak.

Pilaketa honek, buruhauste pranko sortzen dizkigu; izan ere, iazko salmenten arabera egiten ditugu aste edo hilabete batzuk lehenago aurreikuspenak eta azkeneko momenturarte faktore aldakor askoren menpe egoten dira salmentak; eguraldia, ohitura aldaketak...

Aurten esaterako, eguraldi prexkoak loreak azken momenturarte bere puntuant mantentzen lagundu du, baina haize eta euri iragarpenek erosteko bildurra eragin dute erosleengan. Aurreko urtean, berriz, hegoaizea zela eta, ez zen erraza izan lokalak prexko mantentzen lorea azkarregi ireki eta galdu ez zedin.

Azkenengo urteetan loreen munduan gertatutako joera aldaketak nabarmenak dira.

Orain dela urte batzu arte, gorpuak lurperatu eta gai-

neko lur zatia norbere etxeko lore eta harritxintzar edo antzekoz apaintzen omen ziren. Normalean loreekin erdian gurutze bat eginez.

Geroago hasi ziren lorategi edo baserri batzuk egun honetarako lanean. Aurrez eskatutako koroi banaka batzuk eta lorez eginiko gurutzeak prestatuz.

Piskanaka, orain ezagutzen diren lore zentroen antzekoak egiten hasi ziren, baina gaur egun loreak eusteko jartzen den "esponja" partez, garoz betetzen zen ontzia eta honen gainean etxean hazitako lore multzo motz bat jartzen zen ugari-ugari. Honetarako, urreliliak, daliak, larrosak, tageteak eta antzekoak erabiltzen ziren, izotzak oraindik harrapatu ez bazituen behintzat.

Gaur egun berriz, lore eskeintza eta hauek prestatzeko era zabalagoa da. Hau honela izan dadin, lore aukera hau, kanpotik erostera behartuta gaude. Hauekin era askotako zentroak eta lore sortak prestatzen dira.

Bestalde, lehen oso gutxi saltzen ziren landareen salmenta ere zabaltzen ari da. Garai honetan loretan dauden urrelili, ziklamen, azalea landareak ... eta hauekin eginiko nahasketak gero eta eskaera haundiagoa dute, besteak beste denbora gehiago irauten dutelako kanposantuan.

Zutabegileak: Luis Aranalde • Olatz Altuna • Aitziber Matxain • Ainhoa Azpiroz • Aitor Landaluze • Mikel Usabiaga

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA.

IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, **NOUA!**k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOUA!k ez du bere gain hartzen **IKA MIKA** atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: Azaroak 21. Idatzia ekartzeko **azken eguna:** Azaroak 14.

e-posta bidez: noaua.k.e@euskalnet.net



ITZ G
HEIKTEN
S. U. K. P. N. A. I. K. I. U. P.
K. N. A. I. U. K. E. R. T. K. U.
TEL. 33 217

TABERNA-JATETXEA
NTXET

EGUZKITZ, S. L.
2.17 CSU II.
TEL. 337 3

- E u n r k m n u k
- t r t k k
- I t r K n n t u k

Azaroak 9, erlezainen egun handia

Erlezainen egun handia izango da azaroaren 9a. Goiz osoan zehar, Euskal Herriko txoko ezberdineatik etorritako ekoizleen produktuak ikusi, dastatu edota erosteko auketa izango dugu. Azokaren amaieran, III. Ezti Lehiaketako irabazlearen izenak emango dira ezagutzera. Aurten, epaile lanetan, Zubeldia anai txirindulariak arituko dira. Erle Laguna taldeko kide den Ainhoa Arrozpidek eman dizkigu aurtengo edizioaren xehetasun guztiak.

Erleari gauza asko zor dizkiogu. Bereziki, elikadurari eta osasunari loturiko produktuak. Horiexek topatuko ditugu Erle Egunean ipiniko diren saltoki ezberdinetan. Aurten, nabarmentzekoa, Azkainetik Mikela Untsainek ekarriko duen goma modukoa. Haurdun dauden emakume batzuk titi buruetan izan ohi duten mindura arintzeko bikaina omen da eztiz eginiko tresna hori.


Ezti Lehiaketa

Azaroaren 9an, gainera, Euskal Herriko III. Ezti Lehiaketa egingo da. Edozeinek har dezake parte. Lehiaketarako ezti egunean bertan aurkeztu behar da, 9:00etatik

10:00ak bitartean, azokan bertan ipiniko den harrera mahaian. Epaimahaian, sukaldariak, gastronomian adituak eta Zubeldia anaiak izango dira. Lehen aldiz, ezti irabazleak diruz sarituak izango dira. Lore bakarreko zein lore anitzeko ezti onentzat, 150 euro eta trofeoa banatuko dira. Bi ezti sarituei eta beste lau eztiri, analisi berezi bat egingo zaie. Era honetan, aurkeztutako eztiaren kalitatea eta konposizioa neurtu nahi dira.

Bazkaria, Araetan

Eztiaz gain, taloa dastatzeko aukera ere izango dugu. Eguerdian amaituko da azoka baina festari jarraipena eman nahi dionak Araetan egingo den bazkarian har dezake parte. Txartelak azokan egongo dira salgai, 20 eurotan.



ERLEGINTZAREN FESTA HANDIA IZANGO DA AZAROAREN 9KOA.

ERLE EGUNA, ORDUZ ORDU

11:00/13:30.- Azoka. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko ekoizleen produktuen salmenta. Ezti, argizaria, propolioa, ukenduak, kandelak, gozogintza (eztiz eginikoa)...

11:30.- Euskal Herriko III. Ezti Lehiaketa. Bi sail: lore-anitzeko ezti eta lore-bakarreko ezti. Sariak: 150

euro eta trofeoa.

Goiz osoan erakusketa.- Ezti egiteko tresneria, ezti dastatzeko aukera...

Azokaren amaieran.- Ezti sarituen enkantea.

14:30.- Bazkaria Araeta jatetxean. Txartelak egunean bertan salgai, 20 euro.

Hildakoentzat argizaria, bizi direnentzat ezti

Erlea Euskal Herriko abere sakratuetako bat zela entzun nion Unai Elorriaga idazleari. Garai batean, norbait hiltzean, abisua lehenbizi erleei ematen zitzaien. Hildakoaren senideren batek lau haizetara zabaltzen zuen heriotzaren albiste, erleek sepulturarako argizaria egin zezaten.

Eta halaxe jasota dago "Atzoko Zegama" izeneko argitalpenean: "etxen norbeit iltzen tzanen, erlategiko atakea

jaso ta erleari abisoa ematen tziten argizari geio ein tzezen ildakoendako (Isabel Aseginolazari jasoa, 1989ko otsailaren 6an).

Bizitzari eta heriotzari hertsiki lotuta dagoen animalia den aldetik, gure arbasoak guztiz harrizta zeuden erleekin. Ez da harriztekoa; ezti bezain janari gozoa ekoizteaz gain, hildakoei argia emateko argizaria ere eskaintzen digute erleek. Horregatik, garai batean bezala, orain ere mirestua da erlea.

Ahoz-ahoz, urteen poderioz transmi-

titu diren esaeretan argi geratzen da erleei eman zaien sakratu kutsu hori: "erlea ez da saldu behar, zerbiatetz trukatatu bai"; "erlea ez da akabatzen, erlea hil egiten da".

Baina erleari, lehen ere, errespetua zor zitzaion. Franzisko Berasategik "Atzoko Zegama" liburuan dioenez, "erleontzik daren tokin kontuz ibil bear da. Segen otsakin erlek zeero erotzen die ta gizonai gor ekiten e bakie". Badaezpada, beraz, kontuz ibili beharko.

IMANOL
GOENAGA

Txokoalde

Mugimendu ugari

Kaixo auzotar guztioi!
Hemen gatoz berriz ere
auzoko kontuetaz solas egite-
ra...

Ehiza garaia hasia da baina eguraldi honekin ez da ehiza askorik, uso gutxi ikusi baitira zeruan. Hilaren 28an Ejerzitoaren helikoptero izugarri horietako bat ibili zen eguerdian, auzoan barrena buelta batzuk eman eta gero joan egin zen.

Auzoko zeruan mugimendua izan bada, Akerra gaztetxean ere izango dugu nahikoa. San Estebango festetatik hona, kontzerturik egin gabe egon bagara, orain 12 egunetan



hiru kontzertu izango ditugu: lehenengoa aurreko asteburuan izan zen. Acido C eta Gin Tonic izan genituen. Azaroaren 8an, larunbata, Harrika eta Harlax taldeak izango dira gaztetxean. Harlax taldeak "Ez diren gauzak ere badira" disko berriaren aurkezpena egingo

du. Azaroaren 12an, asteazkena, Ira et Decesus eta Brezhnev taldeen txanda. Azken hauek, holandarrak dira eta Frantziatik barrena egiten ari diren biran tartetxo bat hartu eta Akerran izango ditugu. Besterik gabe, hurrengora arte.

A ze pare, karakola eta barea

ANA
URDANGARIN

Kaleberri

Hemen naiz berriz ere, eta oraingoan
asko estimatzen ditudan bi pertsona
izango ditut hizpide.

Gure herrian badira bi artzai gazte-gazteak, ez da erraza horrelako pare aurkitzea baina bi hauek elkar aurkitzen jakin dute. Bata, Jon Harreguy; eta bestea, Martina Urbistondo. Benetan bikote bitxia.

Zenbat eta zenbat aldiz hitz egin dut beraiekin ez dela erraza, gaur egun, bi pertsona aurkitzea artzai mundu honetan elkarrekin aritzeko... Eta zer izango eta beraiek segituan elkar ezagutu zutela. Bestela ere, artzi mundua nahikoa gogorra dela pentsatzen dut eta bata besteari aurkitu izana beraientzat ere diferentzia ederra.

Gainera biak bata bestearentzat eginak daukela dirudi biak sekulako patxada daukate,



hitz batean, artzai peto-petoak.

Ardiak dagoeneko Aralarretik jeitsiak dituzte eta hor dabilta Zarautzera nola ekarri aztertzen.

Dena ondo atera dadila opa diet bieci. Segi horretan bikote. Zuek bezalako gutxi daude eta jada.

Felipe eta Letizia, a ze notizia

Agurtzeko denborarik Agaldu gabe, zuzenean harira joango naiz, beste gai bat nuen zuentzako baina azken orduko berri bat emango dizuet.



Interneten hor zehar nembilela, ustekabeen orrialde batean sartu eta pozteko notizia irakurri nuen: “Felipe Borboikoa eta Letizia Ortizek datorren udaberrian Kalezargo ermitan ezkontzeko asmoa omen dute”.

Kanpotar asko etortzen da gure auzora baina horrelakorik (nere pozerako) ez nuen espero.

Norbaitek Euskal Herriarekiko probokazio-tzat hartuko du baina ez dut uste horrenbesteoa denik (Ibarretxeren planetan ez zen egongo baina utziko dio, noski).

Ez digute oraindik zuzenean laguntza eskatu

baina pentsatzen jarri naiz eta behin etorriko haundi-jendea eta zerbait gurea antolatu behar dugula deritzot. Ermitatik ateratzen direnerako, Peña Pagolan prestatuturiko luntxa berezia eskainiko diegu gure eskuzabaltasuna adieraziz, bitartean plazan, euskal kutsua emanez, aizkolariak, soka-tira eta ahari-jokoak jarriko ditugu, trikitiaz alaiturik (bertsolariak ez ditugu jarriko euskararekin ez direlako eroso egongo).

Badakit jende asko ez dela ados egongo nirekin (NOAUA! aldizkariak, aurrerakoi eta askeak, tartetxo hau eskaini dio aurreneko orrian joan behar zuen berriari) baina lasai laguntzeko prest zaudeten guztiok elkartu eta antolatzen hasiko gara. Izena emateko orria elkartean egongo da. Besterik gabe, nire berri izango duzue.

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Poligono Dieziotxo

Polígono dieciocho” izenez ezagutu nuen nire bizileku berria izango zen auzoa. Izena ez zen batere erakargarria zortzi urteko neskatila batentzat; gaztelaniaz hitz egiten jakin ez eta auzoari estrainekoz hala deitu behar. Baina kontuan harturik garai hartan (eta oraindik ere bai, askotan) “polígono trece” eta “polígono cuarenta y dos” bezala ezagunak ziren auzoak, ez zitzaizdan izena hain arraro egin.

Laster hasi ginen, ordea, auzoa Atxegalde bezala ezagutzen. Atxegaldeko auzo elkartea, Atxegaldeko festak... nortasun propioa zuen auzoak, aizuel! Dieziotxo izan edo beintitres izan! Zergatik, ordea, Atxegalde izena? Atxegalde, Atxega Alde, Atxega-Alde. Atxegatarren omenez egin ote zen? Atxega

jauregiko jabearen lurretan egina izan ote zen? Edo Bernardo Atxagakeriaren bat ote?

Izen berrien irrikan beste batzuen bila joan gara azkenaldian. Orain, Ariztitxo, Beheko kalea, Erdiko kalea, Goiko kalea eta Alperro-Buru darabiltzagu ahoan. Gutun bat bidaltzeko ere ez da nahikoa Atxegalde jartzearekin, kalearen izena jakin behar orain, alajaina!

Izena eta izana ez omen dira bat. Izenak al dakar izana ala izanak izena? Deitzeko modua hainbestetan aldatzeak agian izateko eran ere aldaketa ekarri digu auzotarreri. Edo gure bizimoduen moldaketak bultzatu gaitu izenetan aldaketak egitera.

Azken batean, izen bat edo bestea eduki, norberak egiten du izana.

Atxegalde



JONE
EIZMENDI



AGURTZANE
SOLABARRIETA

Santuenea

Internet kontuak

Interneten denetarik aurki daiteke. Urrutiko mila kontu eta irudi topatuko dituzu sare amaitezin horretan. Urrutikoak eta bertakoak. NOAUA!k ere badu web gunea, noaua.com orria, eta hor gure inguruko albisteak jaso ditzakezu. Albisteak eta zerbitzuak. Urte oso goardiako farmaziak kontsulta daitezke, lan eskaera eta eskaintzen zerrenda... Ez hori bakarrik, baita Usurbili eta bertako elkarteei buruzko aipamen interesgarriak. Auzoetako informazioa ere azaltzen da, bereziki kanpotik datozen bisitariarentzat interesgarriak izan daitezkeen datuak. Esate baterako, aldamenean dugun San Estebani buruz: "Irisasi mendiak aztarnategi megalitiko ugari ditu, gure arbasoen lekukotasuna agertuz. XIII. Mendearen hasierako dokumentuetan "San Esteban Monastegia" aipatzen da. Beti ere, XIV. Mendeko Urdaiaga jauregi gotikoari loturik azalduko da, ziurrenik ere batasun bat osatuko zuten, zeinaren menpean egongo zen Urdaiaga mendetan. Urdaiaga dorrea Gipuzkoako dorretxe gehienak bezala, berdindu egin zuten eta, gaur egun, baserri ederra da, jauregi arrastoak ber-

tan mantenduz.

1836ko desamortizazioa arte, Irisasi mendia Orreaga ko monasterioarena izan zen. Zalantzarik gabe, arrazoi hau

medio, Gipuzkoako basorik handi eta osatuena bezala aipatzen da XIX. Mendean. Geroztik, Estatuaren esku, itsasontziak eraikitzeko eta bur-nioletako egur premia zela eta, antzinako oihana soildu eta hondatzen dute.

Lehen industrializazio ahaleginak zeta lantegien baten arrastoak utzi zituen Andatzaren maldetan. Gure "Orbaizetako ola" partikularra, Irisasiko oihanaren itzalean".

Urdaiaga, Kaleberri, Kalezar, Zubieta eta Aginagak badute atal berezi bat. Ea Santuenearako ere osatzen dugun aparteko atal bat. Zer kontatutarik izago da, ezta?



Etxeetako hormak dardarka



ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Aurreko asteko asteartean, bat baino gehiago izan ziren helikoptero hotsaren gertutasuna zela-eta, beldurtuta ibili zirenak. Helikoptero handi bat ibili omen zen gure auzoan, baita herrian ere (nik ez nuen ikusi) eta etheen hormak dardarka jarri omen zituen. Momentu batean, erriberan lurreratu-ko zela bazirudien ere, bere bidean jarraitu omen zuen. Oso altura txikian egin omen zuen helikopteroak ibilbidea eta normala jendearen urduritasuna ere.

Gai hau alde batera utzita, San Estebango bihurtunean dauden poste handi haien berri jakitea ere gustatuko litzaidake. Denbora dezente daramate poste hauek gure auzoan eta nik behintzat ez dakit zer egiteko asmoa duten hauekin. Hainbeste eskatu ditugun farolak jartzeko ere izan daitezkeela pentsatu dugu, baina, ez dut uste horretarako honela-

ko tramankuluen beharra dagoenik. Ez dakit Denborarekin jakingo ote dugu zein izango den poste hauen zeregina!

Azkenik, gure auzoari dagokion

tarte honetan idazteko, jendearen partehartzea ikaragarri eskertuko genuke. Beti berdinak gara idazten dugunak eta kontaktatzen ditugun kontuak ere antzekoak izaten dira beti. Pertsona berri batek, aire berriak ekarriko lituzke txoko honetara. Zuri ere NOAUA!n parte hartzea gustatuko balitzaizu, auzoko kontuak idatziz, lasai esan gutako bati eta beso zabalik hartuko zaitugu. Ea animatzen zareten!



Santu Guztien eguna

Egun tristeak izaten dira hauek, baina gure etzekoen oroimenak ez du gutxiago merezi. Garbitu, txukundu eta loreak jarri edo landatu egiten ditugu, batzuek esaten dute, loreak ez duela baliorik hil eta gero; bizirik dagoenean behar direla, alegia. Besteak, meza batek, gehiago balio du loreak baino, beste batzuen iritzia, berriz, bizi den artean lagundu eta geroko meza eta loreak ez direla ezertarako, gauzen balioa edo balorea nor bere kontzientziak ematen duela uste dut, nire iritzia da. Lehenbizi lagundu behar dela bizi garen artean, baina meza ateratzea ere gustuko bazaizu



eta baita loreak jartzea ere, zer egon daiteke horren kontra? Inor ez da inor besteak kontrolatzeko, norberari kalte egiten ez dion bitartean, uste dut denak oso ondo konpaginatu daitezkeela.

Ni oso lorezalea naiz, eta beti esaten diet lagunei eta etzekoei, menditik bueltan margarita bat edo beste edozein motako lore bat ekartzeko. Hori bai, ez da zertan egun hauen zain egon behar, loreak jartzeko urtean zehar egun asko izaten dira gure hildakoekin gogoratzeko, urtebetetzean, Santu Guztien egunean, eta abar.

Eta azkenik, esan behar dut izugarritzko betekada hartu zuela Aginagako elizak egun horretan, famili osoak ere bildu ziren. Ikuskizun ederra begientzat, gutxitan dugu dugu horrelako aukerarik.

Aginaga



**MARIA
ANGELES
ARRUTI**

“Endika Abril” finala, igandean

Datorren igandean, hilak bederatzi, Endika Abril XXXX. Txapelketaren finala jokatu da Zubietako plazan, goizeko hamaiketan. Bertan, Lapurdiko bi talde izango dira aurrez aurre: Hazparne eta Ustaritzeko taldeak, alegia. Izan ere, Hazparneko taldeak Billabonako taldea menderatu zuen final-erdietan eta Ustaritzekoak Donibane Lohitzunekoak. Bi aldiz atzeratu beharrean izan dira final-erdiak, eguraldi kaskarraren poderioz baina azkenik, jokatu ziren partidak, joandako igandean.

Beraz, errebotea maite duzuenok, ezinbesteko zita duzue datorren igandean. Partida polita izan dadila eta hoberenak irabazi dezala.

Bestalde, hainbeste urtetan amestutakoa, azkenean ari da forma hartzen: frontoi berria. Urteak dira zubietarrok jarri geniola geure buruari frontoi berria eraikitzearen helburua. Momentu honetan, herrian ez dado espazio publikorik, aterpean edo teilatupean ekintzak egiteko, eta hori “handicap” handia da herri baten garapenean eta herri ekintzak aurrera eramateko amaiarik gabeko buruhausteak eta hamaika lan sortzen ditu. Adibide nabarmenena festak dira, euria egiten duenean, akabo hainbat ekintza. Gu bezalako

hainbat herri eta auzo txiki badira, ikaragarritzko frontoiekin eta horrek beti eman digu halako inbidia.

Baina hala ere, frontoi batek, batez ere balio behar du, bertan pilotan egiteko, eta horregatik, herriko pilotariak amorrubiz daude frontoia estrenatzeko. Izan ere, Zubietako Pilota

Elkarteko pilotariak, urteak darimate beste frontoi batzuetan entrenamenduak eta partiduak jokatzen, beti besteek utzitako orduetan, deseroso alegia. Joko garbia eta errebotearen etorkizunerako, ezinbestekoa zitzagun Zubietako eraikin hau egitea eta gazteak bertan biltzeko balio behar digu. Hor dago gure erronka, frontoiaz baliatuz, gure betiko jokuei beste bultzada txiki bat ematea.



Zubietako



**MIKEL
BENGOETXEA**

Abian da euskararen normalizaziorako Plan Estrategikoa

Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiari heldu nahi dio. Dagoeneko helburu estrategiko batzuk zehaztu ditu eta horiek garatzeko lan-prozedura adostu du Eusko Jaurlaritzaren zein Foru Aldundiarekin. Halaber, duela gutxi egin den Azterketa Soziolinguistikoa hartu da kontuan. Azterketa honek, indargune nagusien artean, NOAUAk duen irakurlegoa aipatzen du (herritarren %81k aldizkaria irakurtzen duela dio).

Udalak euskara biziberritzeko lanetan murgiltzeko konpromisoak hartu zituen urriaren 1ean. 13 erakunde (12 udalak eta mankomunitate batek) onartu dute dagoeneko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN), eta, hiruzpalau urtetako plan estrategikoa prestatu ondoren, urtean urteko kudeaketa-planen bidez garatzen ari dira EBPN, 2003ko kudeaketa-planetik abiatuta. Beste 13 erakunde EBPN prestatzen hasita daude, eta 16 erakunde abiatu dira orain dela gutxi, besteak beste, Usurbilgo Udala.

Udalak Usurbilen egin berri den Azterketa Soziolinguistikoa kontuan izanda, 2004-2007 urte bitarteko euskararen plan estrategikoa egingo du.

Udalak euskara biziberritzeko funtsezkoak diren hiru helburu estrategikoak kontuan hartuz ekingo dio lanari, hau da:

1. Euskara, belaunz belaun eta etenik gabe ondorengoetaratztea (transmititzea), eskola, eskalategi eta familia bidez katea eten ez dadin.

2. Euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko erabilera-eremuetara

zabaltzea, teknologia berrietara, aisialdira, kirolera, udaletxera, erlijio-saiotetara, enpresetara eta abar.

3. Hizkuntza etengabe elikatzea, komunikabide, liburu, publizitate eta kulturgintzaren bidez usurbildarrek eroso, erraz eta kalitatez egin dezaten euskaraz.

Aipaturiko helburuak betetzeko lan-prozedura adostu du Udalak Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko hizkuntza-politikako ardura-dunekin, Patxi Goenaga eta Xabier Huitzirekin, hurrenez hurren; eta, horrez gain, erakunde bakoitzak bere gain hartu beharreko konpromisoak ere adostu dituzte hiruren artean. Hona, Udalak hartu dituen konpromisoak:

1) EBPNren garapen teknikorako eta aplikazio informatikoa erabiltzeko solaskidea izendatzea.

2) Orain arte udalean egin diren ekin-tzen datu-bilketa egitea.

3) Diagnostikoa aztertu eta osatzea.

4) Udaleko Erabilera Planaren jarraipena egitea.

5) Plan Estrategikoaren iraupena erabaki eta proposamena luzatzea.

6) Euskara Aholku Batzordearen gaineko proposamena egitea.

7) Euskara Zerbitzuaren gaineko proposamena egitea.

8) Euskara Biziberritzeko Planaren aurrekontuaren proposamena egitea

9) Komunikazio-planaren zirriborroaren egitea.

10) Plan Estrategikotik abiatuz, lehenengo urteko Kudeaketa Plana osatzea.

* Udalaren prentsa-ohar osoa: noaua.com

EGUNEKO ZENTROA, GERO ETA GERTUAGO

Eguneko Zentroaren proiektua Aurreko legealdian jarri zen martxan. Kalezargo Udarregi-Zaharrean dena prest dago. Zerbitzuaren funtzionamenduak eskatzen dituen obra eta instalazio ezberdinak burutu dira jada. Aurreko udalbatza plenoan, Eguneko Zentroko araudiari hasierako onespina eman zitzaion. Ez hori bakarrik. Zentroaren erabilpena eta zerbitzu publiko honen kudeaketa ere esleitu zuen Udalak. GSR enpresa izango da zentroaren ardura hartuko duena.

ZUBIETAKO BABES OFIZIALEKO ETXEA

Zubietako babes ofizialeko etxeen zozketa iragan astelehenean egin zen. Zorionekoak, hauexek: Andoni Villagrasa Urdampilleta eta Vanesa Fernandez Callarentzat, Barazar Kalea, 2-2 A etxebizitza. Enara Villagrasa Urdampilletarentzat, Barazar Kalea, 2-2 B etxebizitza. Andoni Lizarralde Iraolarentzat, Barazar Kalea 2 1-B.

UDALA ETA ARTZE TALDEAREN ARTEKO HITZARMENA

Usurbilgo Udalak eta Jexux Artze Taldeak adosturiko hitzarmen honi esker, "Ez dok Amairu" erakusketako materiala eta Lakaren eskultura udal ondasun bihurtu dira.

Jexux Artze Taldeak udaberrian antolatutako jardunaldiak ez ziren ohar-kabeen pasa. Harrez gero, "Ez dok Amairu" erakusketa antolatzeko interesa azaldu dute beste herrietako hainbat elkarteak.

Genero-biolentziaren aurkako mozioa aurkeztu zuen PSE-EE alderdiak

Azaroaren 25ean genero-biolentziaren aurkako eguna izango da. Horren haritik, PSE-EEK mozio bat aurkeztu zuen eta ahobatez onartua izan zen.

Amaya Goyaran zinegotzi sozialistak aurkeztu zuen mozioan, datu kezagarri bat ageri da: "urtariletik iraila bitartean,

genero-biolentziak 69 emakume hildako utzi ditu". Mozioak, halaber, hiru puntu nagusi jasotzen ditu: emakumeek jasaten duten tratatu txarrak deitoratzea; Espainiar Gobernuari zein Eusko Jaurlaritzari eskatu biolentzia domestikoaren biktimak babesteko neurriak bermatzea; eta azkenik, biktimen atentzioan areagotzeko errekurtsio gehiago garatzea.



Ordainsarien gaiak irekita jarraitzen du

Udal hautetsien ordainsariak hizpide izaten jarraitzen dute. Urriaren 21eko ez ohiko udalbatza plenoan, EA eta PPK adosturiko proposamena gailendu zen. Baina gaia ez da bukatutzat eman eta akordioaren bila dabilta alderdi politikoe-tako ordezkariak. Akaso artikulu hau irakurri orduko, hitzartua izango da akordio zabalago bat.

EA: "Eztabaidatzen jarraitzeko prest gaude"

"Udal taldeek eta politikoeak jasotzen dituzten ordainsariak izan ditugu azken asteetan eztabaidagai udaltxean. Eztabaida tentsoa bakoitzaren posizionamendua oso ezberdina zelako. EAJ-PNVk eta PSE-PSOEek bat eginik udal aurrekontuei 300.000 eurotik gora suposatuko zuen proposamena egiten zuten; Eusko Alkartasunak, aurreko legealdietako irizpideak mantenduz, 100.000 euro inguru-koa; eta PPK erdibidekoa.

Proposamenak eztabaidatzerakoan argi geratu zen EAJ-PNVren proposamena ilegala zela - horrela adierazi zen udal teknikarien txosten juridiko eta ekonomikoan - eta beraz, ez litzatekeela pleno batean aurkeztu behar. Hala eta guztiz ere, EAJ-PNVk eta PSE-PSOEek pleno berezia eskatu zuten beren proposamena bozkatzeko, eta onartzeko.

Egoera hau ikusirik, alkateak, erdibideko proposamen bat aurkeztu zuen EAJ-PNVren proposamen desproporzionatu horren aurrean, zentzudunagoa, eta PSE-PSOE eta PPren apoioa lortu nahirik.

Udal batzarrean bildurik EAJ-PNVk bere proposamena baztertu zuten, jabeturik prebarikazio egiteko arriskuan zeudela, eta ondorioz, alkatearen proposamena gailendu zen.

Gure ustetan udal politikoen saritzea, egiten den gobernu-lana eta izaten den udal-arduraren arabera izan behar du, beti ere, dugun herri neurriaren arabera. EAJ-PNVren proposamenak ez ditu kontutan hartzen ez udal-gobernu konpromezuak, ez udal-erantzukizunak; botoen arabera proportzionaltasunean oinarritzen da, eta beraz, oposizioak diru-sari gehiago jasoko luke gobernuan lanean daudenak baino.

Ez da bidezkoa. Zer lan egingo den, ze karguei ordainduko zaien - eta ez pertsona konkretuei EAJ-PNVren proposamenak bezala - zenbat ordu eskeiniko diren; guzti hori zehaztu behar da.

Gauden udal egoeran behar beharrezkoa da adostasun zabalaren lortzea eta horregatik zabalik gaude gaia eztabaidatzen jarraitzeko. Epe laburrean emaitzak ikustea espero dugu".

PSE-EE: "lan honek ordu asko eskatzen ditu"

"Ez ohiko udalbatza plenoan, gure proposamena erretiratu egin genuen eta alkateari gauza bera egitea eskatu genion. Alderdietako bozeramaleen arteko bilerarako deia egitea eskatu genion, akordio bat konsensuatu ahal izateko. Baina EA eta PPKo kideek bozketarekin aurrera egitea erabaki zuten. Proposamen hori (PPk uztailearen 15ean aukezturikoa) alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zen. Teknikoek txosten horiek egiten lan handia egin

zutela eta pleno horretan bertan bozkatu behar zela esan zigun alkateak, baina ondorenean bildu eta gaia berrikusi edo zegoen bezala uzteko prest azaldu zen.

Hilabete amaieran zinegotzi batek jasotzen duena zenbatzen hasita, akaso ez du kargu hori hartzeak merezi, ardura handikoa izateaz gain, lan honek ordu asko eskatzen ditu; eta batzuk mehatxatuta gaudenez, askatasunik gabe eta 24 orduz birkar-tzainekin bizi behar dugu".

EAJ-PNV: "Kontaktuan jarraitzen dugu"

"Zinegotzi aukeratuak izan garen EAJ-PNVko kideok gure energiak eta gure ahalmek usurbildarren alde ipintzeko bitartekotzat hartzen dugu zinegotzi-kargua, eta ez saritua den lan bat izateko aukera moduan.

Lehen udalbatza plenoan, EAko kideek alderdi sozialistako zinegotziarekin batera, alkatea eta EAko bi zinegotzientzako ordainsariak edo erretribuzioak onartu zituzten, zinegotzientzat egun erdiko liberazioa adostuz. Aurreko legealdiko korporazioak komisio zein plenoetarako aurrikusita zituen ordainsariak ez zituzten berri-tu.

Horren aurrean, EAJ-PNVko zinegotziok EUDEL-en hartutako akordioak Usurbilgo Udalan betetzeko asmoa azaldu genuen, eta beste alderdien ordezkariarekin hitz egin genuen. Era horretan, zinegotzi sozialistarekin batera, ez-ohiko udalbatza plenorako deia eskatu genuen ordainsari berriak zehaztu asmoz.

Plenoetako aztergaiak, batzordeek edo udal teknikariak eginiko txostenak hartu behar dituzte kontuan. Kasu horretan, beharrezkoak ziren bi txosten: bata, bere zerbitzuengatik oposizioa zinegotziak ordainsariak jasotzeko legalitatea aztertzen zuten; bigarrena, proposaturiko diru kopuruak aurrekontuen partidatan legalki sartzen ziren ala ez aztertzen zuten. Askok laburbilduz, lehen txostenak zioen pertsona batek zinegotzi izate hutsarekin ez duela zertan ordainsaririk jaso behar, zinegotzi-lana egiteaz gain, betetako funtzioa edo egindako lana dela diruz saritu behar dena. Txosten ekonomikoak, berriz, gure taldeak eskatutakoa betetzeko aurrekontuen modifikazioa eskatzen zuela, horrek dakarren tramitazio luzearekin.

Txosten horien aurrean, ez-ohiko udalbatza plenoaren deitzaileok, gaia erretiratzea erabaki genuen. Hurriruz, alkateak, bere proposamena -eta PPren- bozketara eraman zuen eta onartua izan zen alkatearen kalitatezko botoarekin. Honek esan nahi du uztailean hitzarturiko kopuruak ez direla apenas handituak izan.

EAJ-PNVren ustez, udal txosten zinegotziak egin beharrezkoa lana da; batzuk gobernutik egingo dute -orain eta hemen minorian- eta beste batzuk oposizioan. Dударik ez da lan-materialak teknikoak eta administrariak eginak direla. Batzuk aginduko dute, eta beste batzuk, oposizio eraikitzaile batetik, erabaki-proposamenak kontrolatuko ditugu, herriaren onerako direnak onartuz, gure ustez aldatua izan behar duena modifikatuz, eta ados ez gauden proposamenekin atzera eginaz. Hau guztia denbora asko eskainiz egiten dugu. Denbora ere eskaintzen diogu auzoen egoera aztertzeari, usurbildarren beharrak, proiektuak eta kexuak bilduz, eta kontsultak egin nahi dituzten guztien esanetara egonik.

Uste dugu gure taldeak liberazio oso baterako eskubidea duela, gero hiru zinegotzien artean banatu ahal izateko, eta baita talde eta zinegotzi bakoitzeko dagokigun diru kopuruaren igoera; hala nola, liberaziorik ez duten batzordeetako asistentziagatik dagozkigunak. Bukatzeko, ateak irekita utzi nahi ditut etorkizun hurbil batean. Gai honi buruz harremanetan jarraitzen dugu alderdi politiko ezberdinekin. Espero dugu gai hau behin betiko konpondua eta hitzartua geratuko dela hurrengo urteko aurrekontu berrietan".

Joxe Mari Makazaga, Boliviako usurbildarra

Bolivian 39 urte egin baditu ere, ez du ama hizkuntza galdu. Hona etorri izan denean gustura egon bada ere, burua Bolivian dauka eta bertan pozik bizi da. Errepideak asfaltatu gabe daude, argi-endarra ahula da, baina pozik bizi da Trinidad hirian. Lanez gainezka, baina gustura.

Beti hezkuntza munduari loturik egon da Joxe Mari Makazaga. Santa Cruz hiriko La Salle eskolak deituta joan zen Boliviara 1965. urtean. Umezurtzentzako asilo batean aritu zen lanean lehenbizi. 1971ean, Trinidad hirira joan zen. 1974an, La Salle kongregazioa utzi eta ordurarte lankide izandako emakume batekin ezkondu zen. Lau seme-alaba ditu, semeetako bat

AEBetan ari da ikasten. Heidi alaba, berriz, Bolivian fisioterapia egin ondoren gure artean da, Usurbilen, ikasten. Etumeta euskaltegian ari da euskara ikasten. Eta aita pozik, alaba ondo hartua izan delako. Bere ustez, "Bolivian lan mundua ez da batere egonkorra eta kanpoan ikastea ondo etorriko zaie", dio Joxe Marik.

Irakaskuntzari lotua

Ezkondu bazen ere, hezkuntzari loturik jarraitu zuen. San Jose zentroa edo ikastetxea altxatu zuen Trinidaden. Hemengo Helduen Hezkuntza Eskola batekin parekatu dezakegu Joxe Marik zuzentzen duen zentroa. Marginaturik bizi diren sektoreei zuzendua dago gune hau: drogekin arazoak dituzten gazteei, nerabeak diren amei, ezkondu

g a b e k o amei, alfabetatugabeko langileei. San Jose ikastetxean hiru txandatan eskaintzen dira klaseak: goizez, arratsez eta gauez.

Eta milatik gora dira une honetan izena emanda dauden ikasleak. Gai humanistikoekin batera, lanbide-formaziozko eskolak ematen dira ikastetxe honetan. Honi esker, ikasle horietako batzuk unibertsitatara iritsi dira. Eta eskolatugabeak ziren batzuk, orain irakasle dira Trinidadeko San Jose ikastetxean.



Ke arteko egunak Bolivian

Urriaren hasieran, komunikabideetako albiste nagusietako bat izan zen Bolivia. Gasa izan zen ika-mika piztu zuena. Protestaldietan 80 herritar inguru hil ziren La Paz hiriburuan. Krisiaren ondorioz, orduko presidenteak kargua utzi eta Carlos Mesak hartu zuen Boliviako gidaritzara. Politikaririk gabeko gobernu osatu zuen eta horrek harridura piztu zuen. Joxe Mari Makazagaren esanetan, gauzak baretu omen dira: "su-eten giroan bizi gara orain". Venezuelak eta beste hainbat herrialdek pairatzen duten arazo berbera omen da Boliviak gaur egun bizi duen egoera konplexua. Presidente berria-

ren erronka ez dela erraza aitortu digu: "oso polita dirudi gobernuaren independenteekin osatzea, baina oso zaila da aurrera egitea". Parlamentua eta senatua politikariz osatua dago eta hauteskundeetan alderdi politikoak dira lehia-tzen direnak.

Jada ez da nazioarteko prentsako albiste, baina Boliviak premia handiak izaten jarraitzen du.



BOLIVIA

Azalera: 1.098.581 km².

Biztanle-kopurua: 7.322.000.

Populazioaren banaketa: %50,4 hiritar, %49,6 landatar.

Hizkuntza ofizialak: gaztelania, aimarera, ketxuera.

Erdijioak: %92,5 katoliko, %2,6 bahaismo, %4,9 beste.

Talde etniko nagusiak: %31,2 mes-tizo, %25,4 ketxua, %16,9 aimara, %14,5 zuri, %12 beste.

Hiriburua: La Paz.

Moneta: peso boliviarra.

Ganbarra
Opri, jarduera eta lanaren
Ezkerreko mugak
Muzur lane 4 - Ubaital Tlf.: 943 36 25 49

Urtinea
L r k - L r l n r k
L r s r t k - K r k
San Esteban Tlf.: 943 36 22 55

PATRI
JATETXEA
- Eguzkerako menuak
- Plater krutatuak
- Ogiak
Telf: 943 36 27 25
Kale nagusia, 14

La Salleren eskutik joan zen 1967an

Mekanika ezagutza handiak ditu Jose Mari Makazagak. Gaztetan hori ikasi zuen eta ezagutza horiek zabaltzen egin ditu urte hauek guztiak.

Hezkuntza pribatuan aritu zitekeen, dirudunei eskolak eman, soldata jaso eta lasai bizi. Baina Joxe Mari Makazaga behartsuei, baztertuei eta laguntza premian daudenei laguntzeko jaio zen. Kostata bada ere, bere proiektua aurrera atera du. Joxe Marik argitu digun bezala, "helburu sozialak dituen eskola da hauxe". Boliviako helduen hezkuntzan lehenetari-koa izan da Joxe Mari.

Lan asko, laguntza gutxi

Zaila izango zen era honetako gune bat martxan jartzea. Nola jakinarazi, Bolivia bezalako gizarte matxista batean, ezkondu gabeko ama gazteak ere lan egiteko kapazak direla, lanbide bat ikasteko aukera badutela, eta nahiz eta ama izan ileapaintzaile, sukaldari, jostun edo margolari ere

izan daitekeela. Ez dutela prostituziora jo behar. Jaiotzen diren unetik droga munduan babestu diren gazteak ere jasotzen ditu Joxe Marik. Horietako asko orain mekanikoak dira, soldatzaileak, arotzak, elektrikariak... Eta badira gauez ikastetxe honetara joan ohi diren langileak eta batxileratoa atera ahal izan dutenak.



Harro eta gustura

Harro hitz egiten digu Joxe Mari Marik ikastetxe honetaz, eta harro egoteko moduan da gainera. Egunerokotasunean, une desatsegin asko pasa behar izaten ditu, sektore marginatuekin lan egiteak gauza horiek ditu. Laguntza handirik ez du jasotzen, "Trinidadeko Udalak, aurten, haurtzaindegia eraikitzen lagundu digu. Era honetan, hona datozen ama gazteak lasaiago ikasi dezaten".

Baina ez pentsa erreta bizi denik. Gustura dago Bolivian: "aire garbia arnasten dut hemen, klima tropikalak dugu eta

MAKAZAGAREN BIDETIK

Gazte zela, fedeari jarraiki abiatu zen Boliviara Joxe Mari Makazaga. Antzeko bidea egin zuten beste hainbat lagunek. Besteak beste, hauexek lokalizatu ditugu:

- Ignacia Aranburu Sagarzazu, frantziskotarra. Tamwe (Yangon) Myanmar.
- Iñaki Begiristain Azurmendi, frantziskotarra. Caaguazu (Paraguay).
- Mari Karmen Iraola Segurola, frantziskotarra. Mirandopolis (Brasil).
- Alejandro Izagirre Otamendi, frantziskotarra. Buenos Aires (Argentina).
- Begoña Makazaga Egiguren, frantziskotarra. Sidi Bell Abbes (Argelia).
- Maria Luisa Unanue, Bordeleko "Sagrada Familia"ko kidea. Chaco (Paraguay).

"20 ordenagailu behar ditugu"

Batzuei eta besteei eskatutako tornopak, makinak eta tresnak bildu eta horrela jarri zuen martxan ikastetxea. Gaur egun 1.200 ikasle inguru dira San Jose Hezkuntza Zentro Integratura hurbiltzen direnak.

Joxe Mari Makazagaren ahaleginari esker, sozialki baztertuak zeuden sektorek lan mundura hurbiltzeko aukera izan dute. Usurbildar honek esan digunez, "boliviarreri erakutsi diet ikasi ahal izateko ez dela diruduna izan behar. Mentalitate hori aldatu dugu". San Jose ikastetxean aritu diren ikasle asko orain unibertsitate-

an daude. Beste batzuk, ikasle izatetik irakasle izatera pasa dira.

1.200 ikasle, 10 ordenagailu

Internet ere iritsi da San Jose ikastetxera. "Hirugarren Munduan hori gertatzen da, herri txiroak izanik ere, teknologia berrietara iristeko aukera berdina dugu". Baina soilik 10 ordenagailu daude eta "ikasleak 1.200 direnez, beste 20 ordenagailu behar ditugu", adierazi digu Joxe Marik. Erabiltzen ez duzun ordenagailu bat al duzu etxean? Zure lantokian ordenagailu berriak ipini behar al ditu-



zue? Ez dakizula nora eraman ordenagailu zahar hori? NOAUA!ra ekarri eta gu arduratuko gara Boliviara bidaltzeaz. Ea 20 horiek eskuratzeko gai garen. Joxe Mari Makazagak eta bere ikasleek biziki estimatuko lukete.

Knk l

- l ntz r
- Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
luzun k

Zubiaurrenea, 3

33 17 7



txirriStra

TABERNA

- Plater konbinatuak
Ogitarteak
- Pintxoak

Kontseju zaharra, 13

Tel: 943 36 04 66



ARRAINDEGIA
PELLO

JU: xKI 17
T13 21
JSU IL

Birziklatzen ikasteko jolas didaktikoak Urbilen

San Markos Mankomunitatea lan handia egiten ari da sentsibilizazio arloan. Izan ere, zaborra guztion arazoa da eta arazo horri irtenbidea bilatzea, denon erantzunkizuna. Herritar guztiok asko dugu egiteko. Arlo horretan sakondu asmoz, jolas didaktikoak egingo dira hilabete amaieran Urbil merkataritzagunean.



BIRZIKLATRENAK TXIKIEN ETA HANDIEN ARRETA BEREGANATU ZUEN.

Gaikako bilketa eta birziklapen indizeak handitu egin dira azken urteotan. Baina hori ez da nahikoa. Askok dugu egiteko eta hobetzeko. Egutero sortu ohi dugun hondakin kopurua murriztuz, materialak berrerabiliz eta hondakinak gaika birziklatuz.

Hori guztia sustatu asmoz, kontzien-

tziatio kanpaina ikusgarria jarri du martxan San Markos Mankomunitateak. Pasa den astean, Hortzmuga antzerki taldeak Birziklatrenaren ikuskizuna eskaini zuen herrian. Honen segidan, jolas didaktikoak egingo dira azaroaren 27an Urbil merkataritzagunean.



JENDE ASKO SANTU GUZTIEN EGUNEKO AZOKAN

Talota jan, animaliak ikusi eta artisau-lanak erosteko aukera paregabea izan genuen Santu Guztiaren eguneko azokan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, jende asko hurbildu zen. Artisauak pilotalekuaz jabetu ziren.

Arreta gehien piztu zuena burni-lana izan zen. Herriko pilotari gazteak ere, larruzko pilotak egiten temati ikusi genituen. Animaliak eta nekazaritza produktuak, aldiz, Dema Plazan eta Askatasuna Plazan ipini ziren.

ARANGOITI IKASTOLAREN ALDE

Nafarroa Oinez ez zen urriaren 19an amaitu. Orduan hasi zela esan daiteke. Agerialdeko aforian, esate baterako, 100 lagun bildu ziren. Diur biletarako kontu korronteak zabalik jarraitzen dute oraindik.



Santa Zezilia eguna gogoan

Santa Zezilia eguna azaroaren 22an bada ere, kontzertua azaroaren 21ean, ostirala, eskainiko da Udaregi Ikastolako areto nagusian, arratsaldeko 19:30etan. Bertan Zumarte Musika Eskolako talde instrumentalak eta abesbatzak hartuko dute parte eta baita Erretereriako Orereta eta Oinarri abesbatzak ere.

Gainera azaroaren 19an, asteazkena,

Zumarte Abesbatza Erretereriara joango da bertako Fatima Andra Mariaren Elizan (Kaputxinoen Elizan), arratsaldeko 20:30etan Erretereriako abesbatzekin batera kontzertua eskaintzera.

Bestalde, abenduaren 5etik 8ra bitartera, Musika Eskolako talde instrumentala eta Abesbatza Guadalajarara doa maiztean hasi genuen elkar-trukaketa burutzera. Bertan bi kontzertu eskainiko dituzte.

N • I

Il n

MIST

S I r u n , I z ,
m k ! t m n k u r

Zu urr n , 5 - 33 1 51

I n t n n - z r m u n l k

BEMARAYOK IRROSKI
BEMARAYOK IRROSKI...

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Olagarria - Gozotegia

LABE-GOXO

Zumeta, Kursaalgo "Bidaideen" artean

Kursaalgo Kubo aretoak aspal-diko lau lagunen iblbideak bildu ditu. Urtetan "Bidaideak" izan diren lau artista: Remigio Mendiburu, Rafael Ruiz Balerdi, Juan Luis Goenaga eta Jose Luis Zumeta. Lauak, era batean edo bestean, naturari lotuak. Urtarrilaren 11n amaituko da Kuboko erakusketa.

Goenagak eta Zumetak erakusketa honetarako espreski eginiko hainbat margo topatuko ditu bisitariak. Paraleloki, Ekain galeriak lau artista hauen obrak bildu ditu, baina tamaina txikiagoko lanetan erreparatu du Ekainek. Bertan dira Zumetaren oleoak eta lan grafikoak. Ekaingo erakusketa, ordea, abenduaren 25an amaituko da.



KUBO ARETOAN ZUMETAK IPINI DUEN MARGOETAKO BAT. ARGAZKIA: ARRASTOA.

"Bidaideak" erakusketa

Kubo, Artearen Kutxagunea:

Kubo Artearen KutxaGunea, Kursaal. 2003ko urriaren 21etik 2004ko urtarrilaren 11ra.

Ikustordua: egunero, 11:30etatik 13:30ak arte. 17:00etatik 21:00ak arte

Ikustaldi gidatuak:

Jendearentzat oro har edota adin guztietako kolektiboei zuzenduak. Aurrez eman behar da izena. Gutxi gorabeherako iraupena: 40 minutu.

Pintura tailerrak Zumeta eta Goenagarekin:

Eskola, heldu eta famili taldeentzat.

Kopuru mugatuak. Informazioa eta izen-ematea: 943 012 400.

Mintegiak:

Erakusketan zehar hainbat mintegi izango da Aretoan bertan. Hauetan kulturaren munduan entzute handia duten pertsonak arituko dira.

Eta Jos Anton Artze, Bretxan

Okupgraf proiektuak, 2003ko lehen sei hilabeteetan hemeretzi pertsona edo talde gonbidatu zituen joko batean parte hartzera. Bakoitzak bere ikuspegi pertsonaletik, testu, irudi, marrazki, edo zeinuen bidez, edota pankarta edo kartelaren bidez, ondoko goiburua honi erantzun behar zion: "Biziraupeneko kartelak lehen munduan".

Donostiako Bretxako saltoki guneko kanpoko hormetan gonbidatuen hogei kartel jarri dira, eta tartean, JosAnton Artzeren hitzak.

BACRIREN AZKEN

DISKOAN HARTU DU PARTE

JosAnton Artzeren ikutua du Nicolas Bacri musikari frantziarraren azken lanak. "Cantates" diskoan bada kantu bat Artzeren hitzekin osatua, "Isiltasunaren ortzadarra" izenekoa. Diskoan Baionako Côte-Basque orkestra eta koroak hartu dute parte eta baita Hodeiertz eta Kea koro-elkarteek ere.

Bestalde, Elkarlanean zigiluak Artze anaien disko-liburua udazken honetarako iragarri bazuen ere, lan hori atzeratu egin da eta datorren urtean aterako dela adierazi digute argitaletxeko arduradunek.

Hirugarren munduko mixeriaz ari gara bei, hemengorik ez bailegoen...;

hango mixeria aldarrikatzen, hemengoan kontsolagarri, ez hango mixeria egiaz konpondu nahian...

Hemengo bihotzeko mixeria konpondurik bagenu, etxeko mixeriatzat edukiko genuke nonnahiko mixeria.

BRETXAN IRAKURRI DEZAKEGUN ARTZEREN IDATZIE TAKO BAT.

ARGAZKIA: ARRASTOA.

Harridura eragin du angula biltzearen debekuak

Prestige ontziaren isurien beldur, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako barnealdeko ibaietan angulak biltzea debekatu egin zuen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza departamentuak. Angulen mundutik gertu dauden bi lagunen iritziak jaso ditugu eta biak debekuaren erabakia harriduraz jaso zutela adierazi digute.

Anguleroak harriduta daude baina baita anguletara joateko ohitura ez duten asko ere. Izan ere, udan ez dugu itsasoan bainua hartzeko debekurik izan. Jaten ditugun arrainak ere, itsaso berekoak dira eta antza denez ez dira osasunerako kaltegarri.

Erabakia ez da behin betikoa. Epe jakin batean, Prestige ontziak isuritako fuelak angulei zer nolako kaltea eragin dien frogatu bitartean, beharrezko ikerketa eta analisi guztiak egingo dira.

Manuel Aizpuruak urteak egin ditu angulak biltzen, “baina afizioz. Lehen txaluparekin ibiltzen ginen baina gero motorrakin has ziren eta ezin ezer harrapatu”. Hori salatu asmoz, lagun batzuk bildu eta Donostiako Komandantziara joan omen

ziren motorra galeraztea eskatuz. “Baina ez zuten galerazi”, aitortu digu Aginagako lagun honek. Azkenean, Manuelek ere motorra jarri zuen: “udan itsasora joan ohi gara, Zarautzen ere sagasti batzuk ditugu eta ondo datorkigu”. Neguan anguletarako erabili izan duela aitortu digu baina urtean bi edo hiru aldiz baino ez. Manuel Aizpuruaren esanetan, “iaz gabonetarako ez genuen asko jaso. Baina orokorra da, bai hemen, Frantzian eta gainontzeko lekuetan ere. Zeharo jeitsi da”.

Duela bi urte, ordea, hiru saiotan 7 kg bildu zituen anaiarekin batera, “eta ez ginen gehiago ater”. Baina iaz ez zuten angularen arrastorik ikusi. Hala ere, fuel-



IRUDI HAU NEKEZ ERREPIKATUKO AURTENGO DENBORALDIAN.

oilaz baino bestelako kezak aipatu dizkigu Manuel Aizpuruak: “nahiago nuke urte pare batez debekatuko balute. Orain 4 kg sartzen badira, lauak hartzen dira”.

Horrela ezin ugaltu daiteke, horretan ere arrazoi du Manuelek.

Aginagako lagun honek ez du uste Prestige ontziaren hondamendiak angulari kalte egin dionik. Bere ustez debekuaren atzean beste arrazoi batzuk egon daitezke: “angula biltzea

galeraziko ote zutela maiz entzun dugu azken hiru urteotan”. Erreka ez dago baldintza onenetan eta hori ere aipatu digu. Azken honi garrantzia handia ematen dio Andres Bruñok.

Txapapoteak angula kaltetu ote duen galdegin diogunean azkar asko erantzun digu: “ezta pentsatu ere. Hori txorakeria, ez dakit nola bururatu zaien. Antxoa ez dute galerazi”.

Angulen eztabaidak ordea ertz asko ditu. Azken urteotan nabarmen egin du behera baina Andres Bruñoren ustez bereziki ur zikinarengatik izan da. Orain arte erabili diren arrantza-teknikak baino ingurugiro kontuak aipatu dizkigu:

“lehenik erriok garbitu behar dira. Orion sartzen bada, tira. Orain urak garbiago datoz baina Txokoaldetik Lasarte-Oriara joaten utziko bagenie, kutsaduraz hilko lirateke”. Nahiz eta ur kalitateak hobera egin duen, kutsaduraz luze hitz egin digu Andres Bruñok.

“Angulak ala aingirak zaindu behar al dira?”

Frantzian egindako ikerketa bat aipatu nahi izan digu Andres Bruñok. Azterketa honen arabera, erriok 100 kg aingira sartuko balira, soilik %3ak (3 kg, beraz) egingo luke aurrera. Besteak hil edo desagertu egingo lirateke. Andresek argitu digunez, “beste arrainei ere angulak gustatzen zaizkie”. Hori baino kutsadura omen da aingiren eta angulen etsairik handiena.

Dena den, aingirak pakean utzi beharko liratekeela ere esan digu Bruñok. Aingira urte osoan sartzen da baina “bereziki apirilean, maiatzean pakean utzi behar zaio, behar duen bezala ugaltzen. Zer da garrantzitsua? Angula ala aingira? Arraultza ala oiloa zaintzea? Aingira, oiloa zaintzea, nire ustez”.

“Galipotarengatik? Hori txorakeria, ez dakit nola bururatu zaien. Antxoa ez dute galerazi”

ANDRES BRUÑO

Abenduaren 14an egingo da jasangarritasunaren aldeko eguna

Usurbil, Hernani, Astigarraga eta Andoaingo Udalak "Udaltalde Buruntzaldea 21" izeneko hitzarmenean bilduta daude. Asmoen artean, besteak beste, Tokiko Agenda 21 prozesua martxan jartzea. Jasangarritasunaren aldeko apostua hobeto ulertu ahal izateko, jardunaldi interesgarri batzuk iragarri dituzte. Ekitaldi nagusia abenduaren 14an egingo da Hernanin.



USURBIL, ASTIGARRAGA, HERNANI ETA ANDOAINGO UDAL ORDEZKARIAK.

Gai honen inguruan denon partehartzea, denon inplikazioa funtsezkoa da. Horregatik, Udaletxeko Sustapen Ekonomiko eta Nekazaritza Batzordeak Buruntzaldeko beste hainbat udalekin batera, jardunaldi batzuk antolatu ditu. Nagusia abenduaren 14an egingo da Hernanin.

Baina jasangarritasunaren filosofia gure artean sustraitu asmoz, hainbat ekitaldi antolatuko dira Usurbilen: argazki lehiaketa, erakusketak, buzoi berdeak ipini, bideo-emanaldiak ikas-toletan...

Hurrengo ale batean emango ditugu xehetasun gehiago.

Ikusi al dituzu toponimoen errotuloak?

Toponimoak adierazteko errotuloak jartzen hasi da Udala. Hauek dira ipiniko diren errotuloak: Zubieta-Santuenean, Iturritxo eta Orbeldi. Santuenea-Txokoalden, Ormazarreta, Irabi, Biztegi, Iturritxulo eta Zingirieta. Kalezar-Arratzainen, Aranerreaka, Akersoro, Entzarrain eta Bentazikin. Usurbil-Arrazainen, Arrobitxulo, Gorostitxo, Eluxondo eta Ondarrubiko Gaña.



EHIZA GARAIAN, USOAK...

Ehiza garaia da. Nonahi entzun daitezke ehiztarien tirohotsak. Uso asko pasa ziren pasa den astean. Horren lekuko orri honetara ekarri dugun irudia. Urriaren 30ean 26 buru bildu zituen ehiztari honek.



...ETA HELIKOPTEROA

Indar Armatuen helikoptero ihau ez zen oharkabean igaro. Usoek baino zarata gehiago ateratzeaz gain, zatarragoa eta beldurgarriagoa delako. Urriaren 28an, oso gertutik igaro zen helikoptero hau eta Urdaigatik ez ezik, Oriotik ere ikusia izan zen. Urdaigan ateratako irudia duzue ondokoa eta Gara egunkaritik jaso dugu hegaldi militar honen testigantza.



Kafe berezia!

San Esteban kalea, 8

Telf: 943 36 27 70



MAHUKA

Q z n t m kum zk n
m k rr uzt
h m n urk tuk uzu

Etx st k l , 3
T E 3 3 11

Gogoan hartu aurpegi hauek



AGIRRETXE AURRELARIA ETA IRAZUSTABARRENA ATEZAINA, JUBENILETAN ARI DIRA ETA BIEK MAILA ONA EMAN DUTE DENBORALDI HASIERAN.

Nahiz eta Champions League-n jokatu ez, txuriurdinez jantzita zelairatzen dira. Pentsan ohikoak ez badira ere, Realeko etorkizuna dira. Futbol zale amorratuak direnek badakite norzuk diren bi gazte hauek. Jubenil taldeko kideak ditugu biak, Agirretxe aurrelaria eta Irazustabarrena atezaina.

Agirretxek joan etorriko bidea egin zuen Athletic-era. Gaur egun jubeniletan ari da txuriurdinez jantzita. Goleatzaile sena du Agirretxek, 8 jardunalditan 5 gol sartu baititu.

Gogoan hartu bi lagun hauen izenak, laster batean, Primeran jokatuko duten primerako futbol jokalaria izango baitira biak.

Hurrengo saioak !

FUTBOLA

Azaroak 8/9

Emakumezkoen liga: Tolosa CF- Usurbil FT.

Erregionalen 2. maila: Usurbil FT- Lasarte-Oria KE.

Kadeteen 2. maila: Martutene "B" KE- Usurbil FT.



Azaroak 15/16

Emakumezkoen liga: Usurbil FT- Mutriku FT. 16:30etan Haranen.

Erregionalen 2. maila: Urnieta KE- Usurbil FT.

Kadeteen 2. maila: Usurbil FT- San Ignacio CD.

ESKUBALOIA

Azaroak 8/9

Helduak: Usurbil KE- Hegialde Auto.

Kadeteak: Gatz Museoa-Jakion- Usurbil KE.

Azaroak 15/16

Helduak: Urnietako KE- Usurbil KE.

Kadeteak: Usurbil KE- ITE Hondarribia.

ERRASTIN BILDUKO DIRA ZUBELDIA TALDEKOAK

Zubeldia Txirrindulari Taldekoak pozik egoteko moduan dira. Mus txapelketa antolatu eta 32 bikote biltzea ez baita gauza erraza.

Zubeldia Taldeak, ordea, beste ekitaldi bat antolatu du. Azaroaren 15ean, larunbata, bazkarian bilduko dira Errasti Sagardotegian eta Zubeldia anaiak ere bertan izango dira. Txartelak Txiribogan eta Bordatxon ipiniko dira salgai. Haurrentzako menua ere izango da.



HASI DA AITZAGA PILOTA TXAPELKETA

Pasa den ostiralean, binakako lau eta erdiko pilota txapelketaren lehen jardunaldia burutu zen.

IDI-DEMA FESTA

Argote, Olasagasti eta Telleri Aurrez aurre lehiatu ziren Andatzpek eta Aitzagak antolaturiko idi-deman.



Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
 LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



TXIRIBOGA
 taberna

pinxoak, bokatak eta
 plater konbinatuak

Telf: 943 36 13 98

Lehiaketa !

NOAUA!ko LEHIAKETA!!



Sari zoragarri hau irabazi nahi baduzu parte hartu eta bidali zure erantzunak:
 Noaua! harnahoskaria, Bordinabeire 3 Eguzkitzalde, 20170 Usurbil (Gipuzkoa)
 Noaua! Kultur Likarteko buzoian
 E-maila: noaua.ke@euskalnet.net
 Lirantzunak bidaltzeko azken eguna azaroak 16

1. Ze izen du udaletxearen aurreko enparantzak?
2. Eta bertan zenbat zuhaitz daude?

SARIA:
 "SEGAPOTOEN MEZU SEKRETOAK" gida liburuxka
 Hautzarrak-en "BIHURRIKERIAN" musika cd-a
 Kike Amonarriz-en "TXORAKIKERIAK" txiste liburua



Aurreko galderen erantzunak:
 1. Nor da "ZUBIETA, mila urteko herria" izenburua dararian liburuarren egilea?
JOXE RAMON ZUBIMENDI
 2. Eta liburuarren azaleko martzakia nork egina da?
EDORTA MURUA

Eta irabazlea **LEIRE URALDE** izan da. "BADAKIT", euskarazko mahai joko eder hau irabazi duzu. Jaso ezazu saria Noauako egoitzan. **ZORIONAK!!**



Usurbilgo pilotaria

	Ikuskizuna		Gipuzkoa-ko herria		Emagalduak		Mendi magalak		Gizon izena
	Armiarma sareak		Erdal diosal hitza		Artsenikoa		Naizen honek		
	* DEITURA								
	Joan den urtean								
Liraina	Norbait				Ahuntzaren ar				
Ontzi gidoinak	* IZENA				Hitz, berba				
			Euskaraz eta kitto!				L birritan		
			Gizon izena				Niri, balu		
Ez geza				50		Hormako irekigune			
Sobera				Egurra		Erretegi			
		Harginaren lanabesak							Galdetzailibat
		Sufrea							
Itsu geratu					Aluminioa			Kontsonantea	
Izen arabiar					Bokala			Musika nota	
		Norantza							
		Potasioa							
Turkiako hiriburua					Infin., etorri				

Eusko Tren-en neguko tren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.52/		10.21/	10.05	10.24	10.39
10.17	10.33	10.50	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22/		11.47/
11.51	12.05	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.21/		20.48/	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07/		22.32/
21.47	22.03	22.20	22.38/	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik / Zerbitzu berria, egunero

Eusko Tren-en neguko autobus ordutegia

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40		08.05	08.25	06.45	07.05		07.30
08.00		08.25**		06.45	07.05	07.10	07.30
08.00	08.25	08.35	08.55	07.15	07.35		08.00
08.40		09.05	09.25	07.45	08.05		08.30
09.00	09.20	09.30		07.45	08.05	08.15	08.40
09.00	09.25	09.35	09.55	08.15	08.35		09.00
09.40		10.05	10.25	08.45	09.05	09.15	09.40
10.00	10.25	10.35	10.55		09.30	09.35	10.00
10.40		11.05	11.25	09.45	10.05		10.30
11.00	11.25	11.35	11.55	09.45**	10.05	10.15	10.40
11.40		12.05	12.25		10.30	10.35	11.00
12.00	12.20	12.25**		10.45	11.05		11.30
12.00	12.25	12.35	12.55	10.45	11.05	11.15	11.40
12.40		13.05	13.25	11.45	12.05		12.30
13.00	13.20	13.30		11.45	12.05	12.15	12.40
13.00	13.25	13.35	13.55 #	12.45	13.05		13.30
13.40		14.05	14.25	12.45	13.05	13.15	13.40
14.00	14.20	14.30**			13.30	13.35	13.55*
14.00	14.25	14.35	14.55	13.45	14.05		14.30
14.40		15.05	15.25	13.45	14.05	14.15	14.40
15.00	15.20	15.30			14.30	14.35	15.00
15.00	15.25	15.35	15.55	14.45	15.05		15.30
15.40		16.05	16.25	14.45	15.05	15.15	15.40
16.00	16.25	16.35	16.55		15.30	15.35	15.55*
16.40		17.05	17.25	15.45	16.05		16.30
17.00	17.25	17.35	17.55	15.45	16.05	16.15	16.40
17.40		18.05	18.25		16.30	16.35	17.00
18.00	18.20	18.30		16.45	17.05		17.30
18.00	18.25	18.35	18.55	16.45	17.05	17.15	17.40
18.40		19.05	19.25	17.45	18.05		18.30
19.00	19.20	19.25**		17.45	18.05	18.15	18.40
19.00	19.25	19.35	19.55	18.45	19.05		19.30
19.40		20.05	20.25	18.45	19.05	19.15	19.40
20.00	20.20	20.30			19.30	19.35	20.00
20.00	20.25	20.35	20.55 #	19.45	20.05		20.30
21.00	21.20	21.25	21.45	19.45	20.05	20.15	20.40
21.00	21.25	21.35	21.55	20.45	21.05	21.15	21.40
22.15	22.35	22.45	23.05	21.15	21.35	21.40	22.00
22.00	22.25	22.35	22.55	21.45	22.05	22.15	22.40
22.30	22.55	23.05	23.25	23.15	23.35		00.00
00:00		00.25	00.45	01.15	01.35		02.00
02:00		02.25	02.45	03.15	03.35		04.00
04:00		04.25	04.45	05.15	05.35		06.00
06:00		06.25	06.45				

**Aiarrino # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiara

Soilik larunbata gauze / Astegunetan Larunbat lanegunetan

Goardiako farmaziak

Azaroak 7, ostirala
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte

Azaroak 8, larunbata
E: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte / OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil

Azaroak 9, igandea
E/G: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte

Azaroak 10, astelehena
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

Azaroak 11, asteartea
E: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 12, asteazkena
E: Urbistondo, San Francisco 1, Lasarte

Azaroak 13, osteguna
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Azaroak 14, ostirala
E: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte / Iturralde, Bordaberri 1, Usurbil

Azaroak 15, larunbata
E/G: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

Azaroak 16, igandea
E: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Azaroak 17, astelehena
E/G: Orue, Jaizkibel plaza, 2 Lasarte

Azaroak 18, asteartea
E/G: De Miguel, Nagusia, 32, Lasarte

Azaroak 19, asteazkena
E/G: Rodriguez, Nagusia 42, atzea Lasarte

Azaroak 20, osteguna
E/G: Gil, Nagusia 24, Lasarte

Azaroak 21, ostirala
E/G: Acha-Orbea Hipodromoa 6, Lasarte

Azaroak 22, larunbata
E: Gil, Nagusia 24, Lasarte / OA, Kontzeju zaharra 11, Usurbil

Azaroak 23, igandea
E/G: Gil, Nagusia 24, Lasarte

E: Egunez G: Gauzez E/G: Egunez eta gauzez

Urte osoko egutegia
noaua.com helbidean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T)/ 13:15(T)/ 14:35*(T)/ 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00/ 12:45(T)/ 13:45*/18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 / 15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T)/ 13:30(T)/ 15:30(T)/ 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T)/ 13:00(T)/ 15:00(T)/ 21:00 (T)

* Eskola egunetan
T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Datorren Noaua!

Azaroa								
As.	Ar.	Az.	Ox.	Ost.	La.	Ig.		
					1	2		
3	4	5	6	7	8	9		
10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30		

Hurrengo alea ●

Bai esan?

- Udala..... 37 19 51
- Udaltzaingoa..... 36 11 12
- Obrak eta Zerbitzuak..... 37 01 48
- Anbulategia..... 36 20 13
- Udarregi ikastola..... 36 12 16
- Udarregi (Kalezar)..... 36 45 00
- Agerialde ikastetxea..... 36 38 95
- Oiardo kiroldegia..... 37 24 98
- Zumarte..... 37 15 94
- Etumeta..... 37 20 01
- Taxi geltokia..... 36 21 78
- D.Y.A..... 46 46 22
- Ertzantza..... 112
- Suhiltzaileak..... 112
- Larrialdiak..... 112
- Anbulantziak..... 112
- Gure Pakea..... 37 32 28
- Gure Elkarrea..... 37 17 51
- Arrate egoitza..... 36 63 40
- Eusko Tren..... 47 09 76
- Noaua! aldizkaria..... 36 03 21
- Bake epaitegia..... 37 23 36
- Oa farmazia..... 37 60 76
- Iturralde farmazia..... 36 33 95
- Zubietako Batzarra..... 37 20 77
- Argindarra (Iberduero)..... 47 09 76

Oharrak

ETXEBIZITZA

- Pisu bat alokatzen da Txikiardi auzoan. 645 733 812.
- Alokairuzko pisu baten bila nabil, Usurbilen edo inguruan, konpartitzeko. Interesatuak deitu 696 993 089.
- Kaxkoan etxebizitza bat salgai. 670 90 27 62.
- Pisia alokatu edo konpartitu nahi nuke. Nirekin harremanetan jartzeko deitu, 647 973 844.
- Pisu bat bilatzen ari naiz, alokatzeko edo konpartitzeko. Oso urgentea da beraz, pisurik alokatzeko baduzu edo gelaren bat, deitu mesedez hainbat arinen 615 71 01 64 telefonora (Gotzon).
- Etxebizitza salgai kaxkoan. Hiru gela, sala eta berogailuaz hornitua. Igogailua. 627 377 666.
- Estudio bat edo apartamendu bat alokatuko nuke. Tf: 677 082 305.
- Pisu baten bila nabil Usurbilen, alokairuan hartzeko prest nago. Tf: 617 194 688 (Raul).
- Alokairuzko etxe baten bila gabilta. 670 532 443.
- Etxe bat edo lursaila etxe bat eraikitzeko erosi nahi dut Usurbilen. Tf: 943 314791.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua erosiko nuke. 943 364469.
- Alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Urgentea da. Telf: 943 366 759.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxiak saltzen ditut Kale Nagusian. 30 m, 18.000 euro / 15 m 7.800 euro. Telefonoa: 943 37 23 68.
- Yamaha YZ 125 motokros motorra salgai. 1.000 euro. 616 182 574.
- Suzuki Marander 250 CC salgai. Matrikula, SS-4001-BD. Oso egoera onean. Telefonoa: 670 328 760.
- Garaje itxia salgai Etxealdian. 943 373185.
- Galtzaragaina elkartearen bi garaje itxi daude salgai. 943 360 273, Javier.
- Galtzaragainan 200 eta 300 m²-ko bi lokal alokairuan. Interesatuak juntako kideengana jo.
- Galtzaragainan 20 m²-ko garaje itxi bat salgai. Berritua, oso txukuna. 678 81 52 77.
- Eguzkitzan 30 metro karratuko garaje itxia salgai. 667 583 195 (Maria Angeles). Deitu egurditan edo gauetz, bestela utzi mezua.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Umeak zainduko nituzke, edozein ordutegian. Deitu 943 37 10 32 telefono zenbakira.
- Eskolan laguntzarik behar al duzu? Dei iezadazu 943 360 754 (Ana).
- Etxeko garbiketaren egiteko prest nago. Astean hirutan lan egiteko prest. Goizez, 9:30-12:00ak artean. Tf: 943 36 61 32.
- Lan egin nahi nuke udan, arratsaldeetan. Umeak edota jende heldua zaintzeko prest nago. Tf: 657 714 355.
- Neska bat eskaintzen da umeak, etxeko lanak edo

pertsona helduak zaintzeko. 619 844 556.

- Umeak zainduko nituzke, arratsaldez bi orduz. Tf: 647 220 966 (Mari Karmen).
- Lan bila nabil eta etxeko-lanak egingo nituzke, gauetz edo egunez. 620 646 769.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan, Deitu hona: 652 757 495.
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko. 15:00etatik 17:00etara. Astelehen, asteazken eta ostiraletan. 943 36 57 37.

Lan-eskaintzak

- Patri jatetxean zerbitzari bat behar dugu. Deitu 943 36 27 25 telefono zenbakira.
- Sukaldari, kamarera, tabernari eta garbitzailea behar dugu, jatetxe-taberna berrirako. Deitu 15:00-18:00. Tf: 687 078 356.
- Kamarera bat behar dugu asteburuetan lan egiteko. Telefono zenbakia: 943 36 33 58.
- Langile bat behar dugu tabernan lan egiteko, larunbata eta igandetarako. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943 360 217.
- Tabernari bat behar dugu. Deitu telefono hauetara: 943 360 217 / 649 211 665.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Laguntzaile bat behar da Lasarteko ilepaindegiko baterako. 943 37 71 90 / 629 402181.
- Lehengo ilean argazki kamera digitala galdu genuen. Sanyo markakoa. Aurkitu duenak mesedez telefono honetara dei diezagula: 943-360420. Eta besterik ez bada, gutxienez barruan dauden argazkiak eskuratu nahi genituzke.
- Urbilgo bus geltokian argazki marko handi bat tela puska bat "punto de cruz"-ean egin ahaztu genuen. Topatu baduzu deituidazu: 94337 20 34.
- Txakur marroi bat galdu da Zubietan. Koilare urdina du. Topatzen baduzu dei iezadazu: 943 36 39 43 / 655 715 469.
- Erloju bat galdu da, Speedo markakoa. Zilarrezko korreaduna, urdina, esfera obalatu. Bordatxotik Muna Lurra bidean galdu da. 943 37 07 56.
- Belarritako batzuk galdu dira, urrezkoak, Optika inguruan. Topatu badituzu deitu 943 36 06 59 telefono zenbakira.
- Ibilgailuarekin eramateko egokituta dagoen kanping-denda bat saltzen dut. Kanping-aren osagarri extrak barne. 635 729 637.
- Pelukeria bateko estetika kabina bat alokatzen da. 943 36 19 71.



Tel: 943 371 954 Fax: 349 376 551

Txerrimunik ordainetan

Zorionak Eneko!

Azaroaren 5ean Enekok seigarren urtebetetzea ospatu zuen. Etxekoen partez, muxuak, zorionak eta zorte on! Eta opariren bat ere, noski!



Zorionak Unax, Mikel eta Itsaso!

Azaroaren 7an, 8an eta 10ean zuen urtebetetze egunetan ondo pasa eta muxu handi bana lagun eta etxekoen partez.



Zorionak Oihana!

Urriaren 23an urte bete zenituen, eta ez pentsa ahaztu genuenik. Zorionak guztion partez. Animo eta irmo jarraitu!

Zorionak!

Azaroaren 16an bete-ko ditu 5 urte gure etxeko txikiak. Muxu handi-handi bat etxekoen partez. Zorionak eta ondo pasa eguna!



HERIOTZAK

- **Patxi Illarramendi Zubeldia** 2003-X-22. Usurbil.



JAIOTZAK

- **Aitor Niño Eizagirre** 2003ko urrian.
- **Elene Maria Etxeberria Izeta** 2003ko urrian.

Agenda !

AZAROAK 9 igandea

ERLE EGUNA

11:00/13:30.- Azoka. Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko ekoizleen produktuen salmenta. Ezta, argizaria, propolioa, ukenduak, kandelak, gozogintza (eztiz eginkoa)...

11:30.- Euskal Herriko III. Ezti Lehiaketa. Bi sail: lore-anitzeko ezta eta lore-bakarreko ezta. Sariak: 150 euro eta trofeo.

Goiz osoan erakusketa.- ezta egiteko tresneria, ezta dastatzeko aukera...

Azokaren amaieran.- ezti sarituen enkantea.

14:30.- bazkaria Araeta jatetxean. Txartelak egunean bertan salgai, 20 euro.

KZGUNEA

Oinarrizko Internet ikastaroa, 20 ordukoa.

Azaroak 10-Azaroak 21 (11:00-13:00).

Azaroak 17-Azaroak 28 (18:00-20:00).

Azaroak 24-Abenduak 5 (11:00-13:00).

NagusiWeb ikastaroa, 10 ordukoa.

Azaroak 10-Azaroak 21 (16:00-18:00).

IT txartela

Azterketa azaroak 28 (16:00-18:00).

Soluzioa !

	*	E	*	Z	*	K	*	I	*		
	A	M	A	R	A	U	N	A	K		
	*	A	L	U	S	T	I	Z	A		
*	S	*	I	N	O	R	*	A	K	E	R
D	E	M	A	K	*	A	E	K	*	L	L
*	G	A	Z	I	A	*	L	*	B	A	O
L	A	R	*	Z	I	Z	E	L	A	K	*
*	I	T	S	U	T	U	*	A	L	*	Z
A	L	I	*	N	O	R	A	B	I	D	E
*	A	N	K	A	R	A	*	E	T	O	R

Zinearen txokoa !

Euskal Pilota, larrua harriaren kontra

Euskal pilota. Larrua azalaren kontra” dokumentala generoko laburmetraia da, Euskal Herriko gatazkaren inguruan hirurogeitamar elkarrizketetan oinarritua.

Pil-pilean dagoen dokumentala dugu, gai eta edukinarengatik. Oraindik ikusi ez baduzue, orain-txe duzue aukera paregabea. Bitxikeria moduan aipatzekoa da Euskal Herriko pertsonaia ezagun eta leku asko agertzen direla, horien artean Zubietako errebot plaza.

Dokumentalaren inguruko argibide gehiago jakin nahi izanez gero, interneteko helbide honetan aurkituko duzue: www.lapelotavasca.net



Fitxa teknikoak:

Egilea: Julio Medem, (Donostia)

Izenburua: “Euskal pilota. Larrua harriaren kontra”.

Non ikusi daiteke: Astoria eta Principe (Donostia), Oscar (Irun)

Egin kontu !


Hilabeteko azken ostiralekoa

Hilabeteko azken ostiralean bildu ohi dira pilotalekuaren atzean. Asmoa? Presoak etxeratzekeo aldarrikapena gogoraraztea.

Hilabeteroko hitzordu hau azaroaren 28an errepikatuko da.



al s p s t e r a



Juan de Garay kalea
20160 Lasarte-Oria
Telf: 943 37 64 24 Fax: 943 37 61 55



Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala

Zumartegi Poligonoa
Aitzearra kalea, 1
20170 USURBIL

Tlf: 943 36 10 79
Faxe: 943 36 62 92

Jarri Interneteko zure lehen orrialde gisara!

.....webgunetik bertatik egin dezakezu.....



2003ko irailatik gaur arte kaleratutako Noaua! guztiak on-line!

INFORMAZIOA ESKURA

- **Usurbil ezagutu:** Usurbili buruzko informazioa zure eskura.
- **Herritarren zerbitzura:** lan eskaintza eta eskaerak, Gremioen gida, industria gida, telefono interesgarriak , garraio publikoak,...
- **Osasun gida:** urteko goardiako farmazien egutegia, odol emailen urteko egutegia, telefono eta helbide interesgarriak,...
- **Loturak:** esteka interesgarriak topatuko dituzu: gure webgunetik interneten nabigatzeko aukera zabala
- **Noaua! Kultur Elkarteko informazio berriak**
- **Astero herritzen dugu sarean ipini dugun albistegia**
- **Agenda etengabe eguneratzen dugu**

PARTEHARTZAILEA

- Zure informazioa bidaltzeko sistema oso erraza da.
- Inkestak
- Eztabaida guncak

Usurbildarrentzat
egindako webgunea!